

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko otsailak 2 · 1299 zenbakia

ZORIONAK DEPOR

Merkealdia

2mó 89€

lehen 99€
erreflexuen aurkako
betaurreko **graduatuak**

Kontsumitzailearen babaslearen zuzendaritza

ERATZ BIZIKO



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multioplicas.com



ARATOSTIETAKO GIROK ONENIAN!!!



Aratoste bikainenak! **LUSAI** Zatoz!

GUREAN GIROA...
...ziurtaguta dago!
Laurel & Hardy Pub

Ondo pasa Aratosteetan!
Arkupe Taberna

Ezin merkeago!
Ezkeretik
Wintzen
dikigute!
Gure **MERKADILLOA**
Trinkete

Su Beroa
Monjak baina
ezin alafagoak

Jai giro bikainean
CASINO ARTISTA EIBARRES
ONDO PASA!

PIKAPIEDRA
familia zure zain
tronkomobila
atean lagata
AMETSA

KATU
k a l e

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko Klub Deportiboa sortu zela 100 urte bete dira, eta martitzenean egun osoko egitarauarekin ospatu zuten mendeurrena. Goizean hasi eta arratsalderaino, Astelena frontoian egin zituzten jarduera ia guztiak. Eta, arratsaldean, Errebal Plazia eta Toribio Etxebarria kalea izan ziren mendeurren egunerako ospakizunentzat aukeratutako eszenatokiak.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Josu Torrealdai

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



60 metroko errekor berria

Hurrengo martxoaren 16an, Eibarko Klub Deportiboko errekorrik luzeenak, emakumeen 60 metrokoak, 42 urte beteko lituzke. 1982an Elena Gisasolak Madrilgo pista estalian lortutako 7,77ko marka eskuraezina zirudien. Ez dezagun ahaztu garai hartan 7,77ko marka hori Gipuzkoa eta Euskadiko errekor absolutua izan zela, eta klubeko atletaren bat dexente urreratu zen arren (Leire Gandiaga 7,93; Jone Perales 7,80), orain arte inork ez zuen lortu Elenaren errekorra gainditzea.

Gaur urrezko letrekin apunta dezakegu errekor berria Klubean: Elene Arrazola Amianok lortutako 7,66ko marka. 15 urteko Elenek, Eibarko abiadura errekor dun berriak, aurreko asteburuan Anoetako Belodromoan, Gipuzkoako txapelketa absolutuan, 60 metroko finalean sartzea lortu zuen, finalaurrekoan 7,70eko erregistroa lortu ostean.

Bere markarekin pozik eta, aldi berean, urduri (final bat beti da final bat), aurkeztu zen probara. Oraingo honetan finalista gehienak bera baino nagusiagoak, esperientzia gehiagokoak ziren, baina, hala ere, helmugara lehenengo postuan iristea lortu zuen, irteera bikaina egin ondoren. Elenek urrezko domina eskuratu zuen, 7,66ko marka horrekin.

Zorionak etorkizun oparora duen gazte honi. Egunez egun Unben klubeko gainerako atletekin eta Markel Gutierrez bere entrenatzailearen laguntzarekin entrenatu duen horri, hotzarekin, umeltasunarekin, euriarekin eta euririk gabe. Zortetik onena opa diogu datozen txapelketetan eta Eibarko izena podiumaren gorenera eramane dezala.

Inma Urkiola

Hortik esanak



Ziur nago eskutxoa aitzineuskaraz idatzia dagoela frogatuta ere, ez didala Osakidetza lehenago ezarriko erizain eskaldun bat eta ez dela lehenago desagertuko ETB2. Inguruko erdare berdin omen zaie eskutxoa, aski omen dituzte oinak gu zapaltzeko. Bitartean pentsaten dugu gure hizkuntzak baduela esentzia sakral bat, eta hari esker mintzo garela euskaraz, eta horregatik babestu behar dugula. Balirudike euskarak egungo egoera berean egonda berrehun urteko historia baino ez balu, ez litzatekeela den bezain zilegi izango haren defentsa. Ez dela posible euskararen ofentsa.

ANER EUZKITZE, zutabegilea

Hirietako peatonalizazioa langile bati ez doakio hain ondo, goizeko seiretan jaiki beharko delako autoa hartu eta lanera joateko, lantokia erdian izanda ere. Peatonalizazioak hiri bateko gune historikoa aberatsen eta goiz jaiki behar ez direnentzako urbanizazioa besterik ez da; azken horiek direlako, azken batean, gaueko hamaiketan egon daitezkeenak terraza batean zeezer hartzen eta zarata ateratzen. Horregatik egiten zait arraroa ezkerreko alderdiak ere horren alde egotea.

FRANCISCO J. TAPIADOR, geografoa

Bideojokoez ez dituzte jada nerabe biolentoak sortuko, agian, baina haien burua esplotatzea normala dela barneratuko dute. Joko askok lanbide prekarioak dituzte oinarri: kafetegiko zerbitzari, gidari, jatetxe bateko zerbitzari-arduradun, supermerkatuko apal-hornitzaile... "Mario Bross"-ez bezala, ez dituzu lagun berriak egiten pantailak gainditu ahala. Lortzen duzun bakarra lan gehiago egitea da eta, erronka bakarra, agindutako lana ahalik eta azkarren egitea da. Eta bereziki deigarria egin zaidana: arduradun bihurtzen zarenean, gainerako langileak esnatu behar dituzu... lo geratzen direnean! Hots, autoesplotazio etengabea.

GORKA ETXEBARRIA, historialaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OSTIANGO → Osterantzeko, bestelako. "Barkillero erdaldunak eskolako ume bati: -Cuáles quieres? Zabales o apurres? -No, ostiangos".

1940

11 tiralari 4 tonako harriarekin, Eibarko zezen plazan

Indalecio Ojanguren argazki-
bildumako irudi honetan,
gizon-proban parte hartu zuten
11 lagunak daude. Eskumatik
hasita bigarrena Txomin
Ibargain da.



Farmaziak

BARIXAKUA 2
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 4
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 5
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 6
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 7
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 9
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Sebas Deagra Barreira.** 67 urte. 2024-01-25.
- **Carmen Lezea Txurruka.** 95 urte. 2024-01-29.
- **Emilio Chimeno Posadas.** 64 urte. 2024-01-29.
- **Pedro Iriondo San Ildefonso.** 95 urte. 2024-01-29.

Jaiotakoak



- **Steven Martin Merejo.** 2024-01-10.

Era guztietako proiektuak erakutsi dituzte ikasleek Ikasapresa Azokan

3D diseinua, buru-osasuneko zerbitzuak, jabetxe tematikoak, hirietako lorategi hidroponikoak, autobus "kanperizatu" bat... horiek dira atzo Eibarren egindako XIII. Ikasapresa Azokan parte hartu duten proiektuetako batzuk. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako 55 ikastetxetatik etorritako ikasleak, bi milatik gora, eta 106 irakasle bildu zituen ekimenak. Edizio honetan 420 proiektu aurkeztu dituzte guztira (Arabako 46, Bizkaiko 189 eta Gipuzkoako 186).

ARGAZKIAK: EKHI BELAR

ARGAZKI GEHIGO ETA BIDEOAK IKUSTEKO: WWW.ETAKITTO.EUS





Jarduera fisikoaren orientaziorako-puntu berria ipini dute martxan Eibar Ospitalean

Jarduera fisikoaren orientazio-puntu berri bat jarri du abian Udalak, Eibarko Ospitalean. Zerbitzua “Eibar Mogidu” ekimen komunitarioaren baitan dago, eta astelehenaz geroztik erabili daiteke. Hala ere, ez da berria, Toribio Etxebarria kaleko anbulatorioan orain dela bost urte baino gehiago hasi baitziren eskaintzen. Bi orientazio-puntuetako edozeinetara joanda hasten da prozesua: “Lehenik, kontsulta bat egiten da, lehen mailako arretako profesional batekin, eta handik Astelena pilotalekuan dagoen bulegora bideratzen da pertsona. Zerbitzua doakoa da eta jarduera fisikoan aditua den pertsona baten laguntza eskaintzen du, modu indibidualizatuan, eta erabiltzaile bakoitzaren aukeretara egokituta. Erabiltzaileak udalerrian dauden aukerei buruzko aholkularitza jasotzen du, eta baita laguntza eta jarraipena ere, eguneroko bizitzan ariketa fisikoko ohitura berriak txertatzeko aukera izan dezan”.

Ondare balio handiko damaskinatutako eskopeta erosi dute Eibarko Museorako

Armagintzaren Museoak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren finantzaketari esker, Star Bonifacio Echeverria SA fabrikak 80ko hamarkadaren amaieran egin zituen gama altuko hamar eskopetetako bat erosi du berriki, 30.000 eurotan. Aste honetan erakutsi dute museoan, eguaztenean egindako ekitaldian. Bertan egon ziren Eibarko alkatea, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, eta Andoni Zabala Kultura zinegotzia. Udalaren arabera, “une hartako ar-

tisau onenek egindako lana bikaina da. Kalitate goreneko intxaurren zura, eta Patricio Echeverria lantegiko altzairua bezalako materialez gain, Lucas Alberdik apaindu zuen arma, damaskinatu oso aberats eta ugarirekin”. Alberdi Aranzabalen sinaduraren arabera, damaskinatu-lanak 1983an egin ziren. Zupiriaren berbetan, erosi berri duten piezak “lagundu egingo digu gure herriaren ondare industrialia ezagutarazten. Pieza hau esku-lan mota baten eta jakintza baten fruitu da”.



**M^a Angeles
Arrizabalaga Bilbao**

5. URTEURRENA
2019/01/29

**“Zure hutsunea
ezin da bete.
Gure oroimenean
zaitugu,
amatxo laztana!”**



- ETXEKOAK -

**Asier
Urzelai Gisasola**

16. URTEURRENA
2008/02/01

**EGONGO GAITTIK,
KAMARADA!**




- ZURE LAGUNAK -



San Blas opilak bedeinkatzeko mezak bihar goizean ospatuko dira herriko elizetan

Bihar San Blas eguna dela eta, ohi-turari jarraituta, opilak bedeinkatuko dira herriko eliza guztietan egingo diren mezetan. Bedeinkapen guztiak goizez izango dira:

10:30ean Azitainen eta Urkin; 11:00etan, San Pio X.a eta San Agustin elizetan; eta 12:00etan, Karmengo Amaren elizan eta Amañako El Salvadorren.



Jabetze Eskolako ikastaroetarako aurrematrikula otsailaren 25era arte egin daiteke, online edo Andretxean

Atzoz geroztik zabalik dago Jabetze Eskolako udaberriko ikastaroetan aurrematrikula egiteko epea (otsailaren 25ean amaituko da). Aurrematrikulak Udalaren eta Andretxearen webguneetan esku-ragarri dagoen formularioa beteta egin ahalko dira edo, bestela, Andretxean ere bete daiteke.

Ikastaro eta tailerren eskaintza benetan zabala da: *Coaching feminista: Ezagutza, onarpena eta zaintza; Geure Etxean eta gorpuztean burujabe; Osasuna eta zaintza inguruko landareekin; Biorisa: Barreterapia tailerra; Komedia feminista; Boterea, ahizpatasuna, perreoa; Boxeo feminista; Zaindu eta maitatu zure gorputza; Sasoiko sukaldaritza: zer egin dezaket nire udaberriko barazki-saskiarekin?; Autodefentsa feminista; eta Txirigota feminista.*

Antolatzaileen berbetan, "beste denboraldi batez, Emakumeen Jabetze Eskola errealitatea ikuspegi kritiko, dekolonial eta feministatik hausnartzeko, eztabaidatzeko eta aztertzeke topalekua izango da. Estrategia eta aliantza feministak sortzeko eta indartzeko gunea".



Eibarko Baso Biziak elkartearen ekimenez 200 zuhaitz landatu zituzten asteburuan

Eguraldia lagun izan zutela, Eibar-ko Baso Biziak elkarteak 200 zuhaitz landatu zituzten aurreko asteburuan, domekarako antolatutak zuten ekimenean. Argazkian ikusten duzuen taldea Saratsuegitik abiatu zen, eta Haritzbakarraga

mendi inguruetan landatu zituzten zuhaitzak, elkarteak asmo horrekin erositako lursailetan. Hauek dira landatutakoak: sei astigar, 55 urki, 34 elorri albar, 50 lizar, 20 saggarrondo basati, 25 gereziando, bi udare basati eta zortzi ezki.



Marteko girora egokitutako turbina eoliko baten prototipoa egin dute Teknikerren

Tekniker zentro teknologikoak Europako Agentzia Espazialerako turbina eoliko baten prototipoa egin du, planeta gorriaren ingurugirora egokituta. “Marteko haizea energia elektrikoan bihurtu daiteke?” galderari erantzunez, Teknikerrek planeta gorriaren ingurugiro egokieko egokitutako lehen turbina eoliko fabrikatu du, horrela esplorazio espazialeko etorkizuneko misioetan hornikuntza energetiko nahikoa izateko helburuarekin. Tekniker Basque Research and Technology Allianceko partaide da eta 2021etik dihardu prototipo horretan lanean, Horace proiektuaren barruan; dagoeneko hainbat proba gainditu ditu Teknikerren bertan eta baita Danimarkako Aarhus Unibertsitateko haizearen tunelean. Test horiek segundoko 26 eta 16 metroren arteko haize boladekin eta 8 eta 16 milibaren arteko presio atmosferiko pean egin izan dituzte, horiek direlako ohikoak Marten. Neurri horiekin sortutako 50 eta 432 arteko rpm-ko abiadura lan egiten duen aerogeneradoreak Marteko ingurugiroko energia %31n handitu dezake.

Hondamendia gogoratzeko ekitaldia egingo da domekan

Martitzenean, otsailaren 6an, lau urte beteko dira Eitzagako zabortegia amildu zenetik, eta Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia antolatu du domekarako (otsailak 4), 12:30ean, Eitzagan. Plataformatik adierazi dutenez, egun horretan “langileak, osasuna, erantzukizunak, Zaldibar Argitu!” aldarria entzungo da berriro ere Eitzagan. Behargin bi hilda, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran. Azken honen gorpuzkiak hondakin artean lurperatuta geratu ziren. Ingurumenean (pertsonek barne) egindako kalteak ez ditugu oraindik osotasunean ezagutzen”. Gogorarazi dutenez, “Zaldibar Argituk, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartarekin eta Ekologistak Martxanekin batera, herri akusazio moduan dihardu ingurumenaren kontrako delituak aztertzen dituen auzian. Zerbait argitzen lagunduko zuelakoan abiatu genuen epaitegietako bidea. Langileen osasunaren aurkako delituak

aztertu zituen auzibidetik kanpo utzi gintuzten, gerora ikusi zen moduan akusatuekin negoziazioa errazteko. Verter Recyclingeko arduradunek zuhurtziagabekeriazko bina hilketa onartu, eta espetxea saihestea lortu zuten”.

Bestalde, irekita dagoen auziak (ingurumenaren kontrako delituen ingurukoa), lau urte bete ditu instrukzio fasean. Salatu dutenez, “horrekin ia dena dago esanda. Azaroan deklaratu zuen lehenengoz Eusko Jaurlaritzako norbaitek. Hiru teknikari izan ziren, eta Eusko Jaurlaritzak dena ondo egin zuela errepikatu zuten. Ezinbestekoa da lehenbailehen instrukzioa amaitzea, eta epailearen ondorioak ezagutzea. Ikusiko dugu zer esaten duen. Arduradun politikoen erantzukizunez, berririk ez euskal oasian. Urkulluk eta Arriolak, bi baino ez aipatzeagatik, beraien ardura aitortu gabe utziko dute jardun politikoa”.

Eibarrek 153 biztanle irabazi ditu iaztik hona

Azken urteotako martxa apurtuta, Eibarrek iaz baino biztanle gehiago ditu. Hori adierazten du 2024ko urtarrilaren 1eko Udaleko Idazkaritza Nagusiko Estatistika Atalak emandako datuak. Aurtengo kopurua 27.417 biztanlekoa da, 2023an 27.264 biztanle zituen herriak, 2022an 27.330 eta 2021ean 27.566. Ikusten denez, iazko kopurua gainditzeaz aparte, 2022koaren gainetik ere bagaude oraingoan.

Biztanle horietatik, 14.065 emakumeak dira eta 13.352 gizonezkoak, hau da, gizonezkoak baino 713 emakume gehiago bizi da gurean. Aipatutako kopuru hori adin-taldea eta generoaren arabera banatuta, 25 urtera artekoak 6.552 dira (guztien %23'9), 26tik 50 urtera artekoak

8.302 (%30'3), 51tik 65 urtera artekoak 5.828 (%21'25) eta 66tik 100era artekoak 6.722 (%24'5). 13 dira 100 urteak gainditzen dituztenak eta, "betiko legeari" jarraituz, hortik gehiengo argia, 11 hain zuzen ere, emakumezkoak dira; adin horretara heldu dira beste bi gizonezko.



Ehun urtetik gorako 11 emakume daude, gizonezkoak bi bakarrik direnean

Aurreko adin-tarte horietan, generoaren araberrako sailkapenek honelakoa diote: gizonezkoak gehien goa direla 50era arteko tartetean, emakumezkoak aurrea hartzen dutela gutxigatik bada ere 51tik 65 urtera artekoan, eta hortik 100era artekoan aldea handitzen dela, emakumezkoak mila gehiago izan arte. Horrela, 0-25 tartean 3.356 dira gizonezkoak, emakumezkoak (3.196) baino 160 bizilagun gehiago; 26-50 tartean, 256 gizonezko gehiago emakumezko baino (4.279 eta 4.023, hurrenez hurren); 51-65 tartean, 56 emakumezko gehiago gizonezko baino (2.942 eta 2.886, hurrenez hurren); eta, azkenik, 66tik



Untzaga plaza jendez beteta San Andres jai egun batean.



Bi hamarkada dira dagoeneko, 28.000 biztanletik jaitsita ere, 27.000tik gorako kopuruari eusten diola Eibarko populazioak.

100 urtera artekoan alde hori asko handituko da, emakumeak 1.064 gehiago izateraino (3.893 eta 2.829 dira bizilagunak).

76 herrialdeetatik

Eibarren, bestalde, 76 herrialdeetatik etorritako 3.092 bizilagun daude, apatridak barne; horietatik, 1.595 gizonezkoak dira eta 1.497 emakumezkoak. Ikusten denez, parekotasuna ikusten da arlo horretan: 98 gizonezko gehiago dira bakarrik. Nazionalitateei erreparatuz, Marokok jarraitzen du nagusi izaten, 1.014 bizilagunekin (571 gizonezko eta 443 emakumezko) eta atzetik datoz Kolonia (311), Nikaragua (251) eta Venezuela (171) amerikarrak. Ondoren, ekialdeko Pakistan (129) eta Afrikako Senegal (124) daude ehun lagunetik gorako artean. Jarraian Dominikar Errepublikak (93), Brasil (91), Honduras (81), Portugal (77), Errumania (59), Kuba (49), Aljeria (46), Bolivia (42), Peru (40), Nigeria (36), Ekuador (33), Albania (32), Argentina eta Txina (31), Ukraina (20), El Salvador, Mexiko eta Paraguai (19), Britainia Handia eta Italia (17), Mali (15), Afganistan (13), Kongo (12) eta Frantzia, Mauritania eta Nepal (10). Hamarretik beherako lagun kopurua dutenek beste 41 herrialde dira. Apatridak, bestalde, 38 dira guztira.



Etorritakoen artean, marokoarrak jarraitzen dute nagusi izaten.

Gehiago ere izan ginen

40.000 biztanle izatera iritsi zen Eibar 1975. urtearen bueltan. Aurreko hiru hamarkadatan, 1945etik aurrera, biztanleen kopurua 13.823 biztanletan hazi zen. Baina 1973an hasi zen krisi industrialak fabrika askok euren ateak ixtera behartu zituen, eta lur eskasiak beste herri batzuetara joatea ekarri zuen.

Gerra amaituta, 1950etik 1960ra bizilagunen kopurua ia bikoiztu egin zen

Behin XXI. mendean sartuta, biztanleen kopurua 30.000tik beherakoa izango da beti.

Aurreko mendeko datuak, hamarkadaka bilduta, honako kopuruak eskaintzen dizkigute: 1900.ean (6.583 bizilagun bakarrik), 1910.ean (10.121), 1920.ean (11.888), 1930.ean (12.874), 1940.ean (11.772), 1950.ean (16.318), 1960.ean (31.725), 1970.ean (37.073), 1980.ean (36.424) eta 1990.ean (33.422). Kopuru horiek erakusten digute lehenengo hamarkadan izandako hazkundeari ez ziotela hurrengokoek jarraitu, izandako gerratean ondorioz. Bigarren Munduko Gerraren amaierarekin Eibarko populazioa asko hasi zen igotzen, 1950etik 1960ra biztanleen kopurua ia bikoiztera helduz. Hurrengo hamarkadan ere igoko zen kopuru hori, baina "baby boom" sasoi hura amaituta, eibartarron kopuruak behera egingo zuen.

Behin XXI. mendean sartuta, 2000. urtean 28.942an zenbatu zen orduko biztanle kopurua. Gutxinaka, urtetik urtera, kopuru hori jaisten joan da eta, 2004tik aurrera (28.006 izan zen orduko kopurua) 28.000ko marratik behera izan gara beti, gehienetan jaitsiz, eta beste batzuetan -oraingoan bezalazeozer handituz, beti ere 27.000tik gora, batez ere etorkinei esker azken urteetan.

Sanblas opilekin batera datoz aurten koko-dantzak

Kezka dantza taldearen eskutik urtero egiten diren koko-eske eta koko-dantzekin hasiko dira Aratosteak, bihar. Goizean goizetik irtengo dira koko-marru eta koko-dantzariak kalera: 08:30ean Errebalen lehen agerraldia egin eta gero, aurten Aginagako baserrietan ibiliko dira goiz osoan, koko-eskean. Eta arratsaldean, berriz, herriko kaleetan ibiliko dira kalejiran.



Eibarko erdialdeko kaleetan kalejira egiteko, 18:30ean Errebalen elkartuko da koko-marru eta koko-dantzarien konpartsa. Handik abiatuta, eta Elgoibarko Mautitxa txarangak lagunduta, Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Plaza Barria kaleetan ibiliko dira. Eta azken koko-dantza eta kantuak Errebalen egingo dituzte, 21:15ak aldera.

Aste honetan aurkeztu du Udalak Aratosteetarako prestatu duen jai-egitaraua, eta ekitaldi berean eman zituzten ezagutzera Kultura sailak antolatzen duen kartel lehiaketan saritu dituzten lanak. Lehiaketaren edizio honetan 120 kartel jaso dituzte guztira, eta helduen mailako irabazlea Maria Ortiz de Bañosen “Mozorro lehiaketa” izenekoa izan da. Hori izango da, hain zuzen, ate-joka ditugun Aratosteak iragartzeko erabiliko dena. Haurren artean, berriz, Jare Arzuaga Ibarretxeren “Aratosteetako oroitzapenak” eta Ane Plaza Uberaren “Karnabalak airean” saritu dituzte, 11-14 urte bitartekoen mailan eta 10 urtera artekoan, hurrenez hurren.

Kalejirak, dantzak eta jaialdiak ikastetxeen eskutik
Urtero bezala, datorren astean, Eguen Zuri egunean abiatuko da Aratosteak ospatzeko programa. Aur-



Ezkerretik hasita, Patxi Lejardi Euskara eta Jaietako zinegotzia, Jon Iraola Eibarko alkatea, Andoni Zabala Kultura zinegotzia, eta Asier Lopez de Viñaspre Kultura saileko teknikaria, Aratosteetako kartel lehiaketan saritutako lanak erakusten SILBIA HERNANDEZ

kezpen ekitaldian azaldutakoari jarraituz, 15:15ean hasiko da La Salle, ASPACE, Juan Antonio Mogel eta Aldatze ikastetxeek elkarrekin egiten duten kalejira, herriko erdialdeko kaleetan. Gainontzeko ikastetxeek, berriz, eskolan bertan edo inguruan egingo dituzte Aratosteak ospatzeko kalejirak, dantzak eta jaialdiak.

Horrez gain, arratsaldea girotzeko, Adolfo Jainagaren trikitixa eskolakoak Urkizutik irtengo dira, 17:00etan, Untzagaraino kalejira egiteko. Untzagara ailegatu eta, segidan, Lisker taldearen erromeria hasiko da. Gainera, 17:00etatik 19:00etara makillaje eta maskara tailerrak egongo dira martxan, Untzagan, Astixaren eskutik. Eta As Burgas Galiziako Etxeak, urtero bezala, koko-jantzi lehiaketa egingo du Urkizuko bere egoitzan (atzealdean), 19:00etan hasita. Hiru onenentzat sariak banatuko dituzte, eta txokolate-jana, parte hartzen duten guztientzat. Eta, gainera, Os Galaicos musika taldeak girotutako pintxo-pote berezia antolatu dute.

Koadrilen Kalejira Lehiaketan eta Aratosteetan ondoen apaindutako taberna lehiaketan parte hartzeko izen-ematea, otsailaren 8ra arte

Eguen Zuri egunean hasita, Aratoste Martitzenera arteko jarduerak osatzen dute egitaraua aurten ere, eta gorabehera txikiren bat salbu, azken urteotakoari jarraituko zaio aurten ere. Besteak beste, Koadrilen Kalejira Lehiaketa eta Aratosteetan ondoen apaindutako taberna lehiaketa antolatu ditu Udalak aurten ere, eta parte hartu nahi dutenentzat izen-ematea zabalik dago, astelehenaz geroztik. Otsailaren 8ra arte eman ahalko da izena batean zein bestean, eta parte hartzeko baldintzak eta bestelako informazioa Udalaren webgunean kontsultatu daitezke.

Eguen Zuri eguneko arratsaldea girotzeko, Adolfo Jainagaren trikitilariek kalejira egingo dute, Lisker taldeak erromeria eskainiko du, eta haurrentzat tailerrak egongo dira martxan, Astixakoen eskutik

“Ama galdu duen ume baten erresilientzia aldarrikapena da ‘Azken galdera amari’ ipuina”

MANEX BERISTAIN • Barreterapeuta eta psikomotrizista



Orain dela hilabete batzuk berarekin barreterapia egin ondoren, bestelako gai batekin datorkigu oraingoan Manex Beristain. Azpeitiarrak ‘Azken galdera amari’ liburu a aurkeztuko du ...eta kitto! Euskara Elkartearen, hilaren 27an, haurren ikuspuntutik heriotzaren gaia lantzen duen ipuina. Ez da ohiko liburu aurkezpena izango, Beristainek saio berezia prestatu duelako.

Gertaera erreal batean oinarrituta dago istorioa, eta Ekain izeneko haurraren eta Mirari amaren arteko maitasun istorio gordin bezain samurra kontatzen du. Lehen pertsonan bizitakoa azaleratzen du Beristainek eta, horren bitartez, haurrekin doluaren gaia lantzeko aukera ahalbidetzen du.

Aurrekoan barreterapia saioa eskaini zenuen eta oraingoan oso bestelako gai bat landuko duzu: dolua. Bi muturretan dauden gaiak dira edo, moduren batean, elkarri lotuta daude?

Ez dakit zer esan. Inertzia baten edo gertaera ezberdinen ondorioz iritsi naiz bide horretara. Egia da kasu bietan barne mugimenduak sortzen direla, emozioak aktibatzen direla. Barreterapiak alaitasunekin eta bere barruko ume horrekin konektatzea ahalbidetzen dio jendeari, eta doluaren kasuan, heriotza lantzen da. Muturreko gaia dela dirudi, baina heriotza bizitzaren parte da eta, neurri horretan, barre mugimendu horiek sortzen diren neurrian, gauzak pizten dira. Ying eta yang izan daitezke gauza biak. Dena dela, ez naiz azalpenik bilatzen saiatzen. Gauzak horrela dira, eta kitto. Jendeari txokatu egiten dio bi gauza

hain ezberdinak izatea, baina osagarriak dira, bizitza eta heriotza bezala.

‘Azken galdera amari’ da idatzi duzun liburuaren izenburua. Zer azaldu daiteke lanaren inguruan?

Benetako gertaera batean oinarrituta dagoen ipuina da, euskaraz eta euskaratik egindakoa, Euskal Herrian gertatutako istorio batean oinarrituta. Protagonistak Mirari eta Ekain dira. Horrela dute izena benetan, gainera. Bere garaian, beste izen batzuk jartzekotan egon nintzen, baina, izenak aldatuz gero, ipuina ezberdina izango litzatekeela pentsatu nuen, eta modu gordinean, ipuina errealtatearekin batera joan zedila erabaki nuen. Bertan, Ekain semearen eta Mirari amaren arteko harremana jorratzen da. Bederatzi urteko Ekainek, hiru urte zituenenean ama nola gaixotu zen eta orduan bizitako prozesua kontatzen du. Gero, amarekin amesten du eta dolu-prozesu horretan galderak egiten dizkio amari (galdera horiek Ekainek niri egin zizkidan ama hil zenean), eta amak erantzun egiten dizkio. Galdera unibertsalak dira, umeek orokorrean egiten dituztenak. Heriotzaren inguruan kuriositatea sortzen hasten zaienean, 5-6 urterekin, galdera horiek egiten dituzte eta horien aurrean helduok deseroso sentitzen gara. Galderak jakinmin baten ondorioz sortzen



Liburua aurkezteko saio berezia eskainiko du Manex Beristainek ...eta kitto!-ren egoitzan.

dira. Heriotza ulertu nahi dute, baina batez ere bizitzaren prozesua. “Hemen nago, baina nire inguruan gauzak gertatzen dira. Animaliak hiltzen dira, natura eraldatzen doa, lagun baten aitona edo amona hilko da...”, horren guztiaren azalpena nahi dute. Zentzu horretan, Ekainek gauzak jakin nahi zituen eta nik ahal nuen moduan erantzun nizkien bere galderari. Azken neurrian, ipuina erreminta bat da.

Ipuina umeei zuzentzen zaie edo helduentzat ere baliagarria da?

Helduentzat ere lagungarria da. Ipuinaz haratago, hezkuntza komunitatean erabili daitekeen tresna pedagogikoa da. Gida bat bezalakoa da. Gai asko lantzen ditu: minbizia, zaintza, maite dugun pertsona nola agurtu, agurtzearen garrantzia, dolua, bizitzarekin berriz bat egitea... Ama galdu duen ume baten erresilientzia aldarrikapena da.

Zuretzat nolakoa izan da liburua idazteko prozesua?

Urte luzeetako prozesua izan da. Urte askoan zehar, errelato bat eduki nuen. Mundu guztiari kontatzen nion zer gertatu zitzaigun eta gertatu zitzaidan hori bihurtu nintzen ia-ia. Orduan, konturatu nintzen hori baino

“Liburua idazteak gauza asko soltatzen lagundu dit eta semeari asko lagundu dio emozio pila bat ateratzeko, amaren oroitzapenari lekua egiteko...”

gauza gehiago nintzela: aita, laguna, irakaslea, psikomotrizista... Gau batean, hori guztia paperera eraman nuen eta han zerbait zegoela konturatu nintzen. Hau da, posible zela hortik ipuin bat edo zerbait sortzea. Orain dela urte bi idatzi nuen ipuina eta nolabaiteko fikziozko alderdia gehitu nion, hau da, ametsaren parte. Ipuina biltzen eta lagungarriak izan daitezkeen erremintak eskaintzen laguntzen duela uste dut. Liburua idaztea oso askatzailea izan da. Gauza asko soltatzen lagundu dit eta semeari asko lagundu dio emozio pila bat ateratzeko, amaren oroitzapenari lekua egiteko, eta abar. Prozesu potentea izan da, baina berriz ere bizitzarekin konektatzen lagundu digu.

Elkarrizketaren
BIDEOA

Liburua herri askotan aurkeztu duzu. Nolako harrera izan du? Lagungarria izan da jendearentzat?

Oso harrera ona izan du. Ez nuen ezer espero. Lehen aurkezpena gonbidapen bidez egin genuen eta jende pila bat etorri zen. Orduan, toki ezberdinetara deitzen hasi nintzen eta interesa pizten zuela ikusi nuen. Gaiarengatik eta gaia nola planteatzen den modurengatik izango zela uste dut. Herri askotan aurkeztu dut, ipuina jende askorengana ari da iristen eta jendea oso eskertuta dago. Lehen ez zegoen espazio bat bete du ipuinak. Ipuin asko daude heriotzaren inguruan, baina benetako gertaeretan oinarritutako ipuin gutxi, eta euskaraz eta Euskal Herrian gertatutakoak are gutxiago. Ipuina gordina da, baina aldi berean zerbait sakonarekin konektatzen zaitu, benetako egia horrekin. Gure bizitzan zurrunbiloaren barruan murgilduta gaude eta batzuetan gelditu beharra dugu benetan garrantzitsua den horri heltzeko.

Batzuetan, umeak babeste aldera, heriotzaren eta doluaren gaia ez da eurekin lantzen. Horri buruz eurekin berba egitea beharrezkoa da?

Intentzio onenarekin babesten ditugu umeak, baina azkenean gure burua babesten dugu, ezin dugulako min horrekin, gure minarekin. Umea bere prozesua eramateko gai izango dela konfiatu behar duzu (bere tristura, mina, amorrua...). Umea babesteko aitzakia-ekin, gauzak leundu egiten ditugu edo gaia baztertzen dugu, baina umeak galdetzen jarraitzen du, jakin egin nahi duelako. Prest dago erantzuna jasotzeko. Orduan, momentu pribilegiatu hori aprobetxatu behar da. Galdetzen duenean, aukera dugu gelditzeko, esertzeko, begietara begiratzeko eta erantzuteko. Horrela, umeak ez du zertan sortu bere pelikula paraleloa. Umeak galdetzen badu eta ez badiozu erantzuten, bila jarraituko du eta nonbaiten bere pelikula egingo du bere zalantzei zentzua emateko.

Umeek eta helduek dolua ezberdin bizi dute? Prozesua elkarrekin egin ahal da?

Bakoitzak bere modura bizi du dolua, oso pertsonala da. Bakoitzak bere erritmoak ditu. Dolua ez da zerbait



“Umeak galdetzen badu eta ez badiozu erantzuten, bila jarraituko du eta nonbaiten bere pelikula egingo du bere zalantzei zentzua emateko”

lineala. Barruko zauriak sendatzeko espazio eta denbora bat da. Prozesu unibertsala da, mundu guztiak du doluaren momentu hori eta, sentitzen eta sendatzen zoazen neurrian, aurrerapausoak ematen dituzu, baina beti daude atzerapausoak. Umeak guri begira daude eta, beraz, helduak dolu bikoitza egin beharra du: norberarena eta, era berean, umearen doluari eutsi behar dio. Askotan, doluaren bidea umeek markatzen dute (galderen bidez, ateratzen dituzten emozioen bidez...). Bakoitzak bere modura bizi du dolua eta garrantzitsua da hori errespetatzea.



IMANOL MAGRO

Arazoa ‘sorioneku’-a balitz...

Azken asteetan zeresana eman du berriz Irulegiko eskuak. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari zientifikoaren azken alean hari buruzko hainbat ikerketa eta iritzi bildu dituzte. Hainbaten arabera, oraindik ere ezinezkoa da piezako testua euskararen ahaideren batean idatzita dagoenik baieztatzea. Alegia, ezin dela esan bertan idatzitakoak euskararekin harremana duenik, baina ezta aurkakoa ere. Finean diote gehiago ikertu behar dela, eta ikerketa zientifiko zehatzen erritmoa eta egungo gizartearena oso ezberdina dela.

Harritu nau ikusteak ondorio horrek sasiarkeologo bat baino gehiago sumindu duela sare sozialetan. Besteak beste, Nafarroaren bihotzean eginiko aurkikuntzak sortu zuen poz orokorra pixka bat zapuztu duelako. Era berean egongo da iazko udan eskuaren irudiarekin erositako lepoko, belarritako edo elastikoa hilabete batzuetan jantziko ez duenik. Izan ere, euskal hiztun askok harrotasunez azaltzen dugu, batez ere udan kanpora goazenean, euskara Europako hizkuntza zaharrenetakoa dela, jatorri ezezaguna duela, isolatuta eutsi diola zabalkunde handiagoko hizkuntzen artean... Eta ez zaigu gustatzen mistika hori auzitan jartzerik.

Susmoa dut, baina, askotan arreta handiagoa jartzen dugula Kristo aurreko I. mendeko euskararen XXI. mendekoan baino. *Sorioneku*, *sorioneke* edo dena delakoa protoeuskara den edo ez baino garrantzitsuagoa da egungo erabilera datuei erreparatzea, eta azaleratu duten estankamendu/atzeraldi egoerari. Hala Eibarren nola Euskal Herrian. Ezagutza inoiz baino handiagoa den garaietan erabilera ez da hazten, eta ekuaziotik ume giroa ateratzen badugu, argazkia are itsusiagoa da. Eta bide horretan ez ditugu lagun izango ez epaileak ezta erdaren aldeko apustu itsua egiten duten mota guztietako enpresak ere. Alegia, etorkizuneko euskarak iraganekoak baino gehiago arduratu behar gintuzke. Eta, bide batez, utz diezaiegun paleolinguistei bakean lan egiten.

“Sorioneku, sorioneke edo dena delakoa protoeuskara den edo ez baino garrantzitsuagoa da egungo erabilera datuei erreparatzea”



Zorionak, DEPOR

Primeran joan ziren Eibarko Klub Deportibokoek astelehenean eta martitzenean antolatutako ekitaldi guztiak. Bezperan Arrajolatik Urkora arteko bidea argiztatu zuten, 300 lagun baino gehiagoren parte hartzearekin. Martitzenean, "zetenario" bihurtu zen egunean, goizetik Erlora bidean batzuk eta eskolakoek Astelena frontoian ekin zieten prestatutako ekitaldiei. Errebalen lehenengo eta Depor parean jarraian egin ziren akto garrantzitsuenak, eibartarrok giro alaian bizi izan genituenak.



Errebalgo ekitaldiko lau hizlariak. Aresatz Usobiaga berbetan, eta atzean Iñaki Osoro, Jon Iraiola eta Mikel Larreategi.



Antxon Aldalurrek "Trunboi"-ren bertsoak irakurri zituen. Berarekin Aitor Elduaiei, ekitaldi guztietan speaker lanak bete zituenak.



312 lagun izan ziren astelehenean Urkorako bidearen argiztapenean parte hartu zutenak. Eguraldia ere lagun, bikain irten zen. IRAIA AGIRRE



Astelena frontoiak hartu zuen martitzeneko zatirik handiena, ikastetxeetako ikasleekin. Korrika zintan, bizikleta rodiloan, pilota barruak eta xakeak ere tokia izan zuten bertan, bideo-emanaldiaren aurretik. Ondoren, Errebalgo ekitaldiak hartuko zuen haren lekukoa.



Klub Deportiboko lokalaren kanpo aldeak argiztatutako errotuloa erakutsiko du hemendik aurrera.



Sokadantzak egoki dotoretu zuen Deportiboaren aurrean egunari amaiera emateko antolatutako ekitaldi-saioa.



Txaloak ez ziren falta izan T. Etxebarriako ekitaldietan.



Txistulariek eskainitako doinuek giroa ipini zuten.



Errealgo ekitaldian alkateak eta Deporrek ordezkariak hartu zuten parte. Bertan 1924ko akta fundazionala irakurri zen.



Martitzeneko ekitaldiekin amaitzeko familia argazkiak egin zituzten, Deporren bertan eskainitako luntxari ekin aurretik.



Arrateko Partenoia, ezker pareta eta guzti. PEDROELIZONDO

Eibar Igerixaneko bi ordezkari Gipuzkoako txapelketen podiumean

Aurreko asteburuan Bergarako Agorrosin kiroldegian jokaturako Neguko absolutu, junior eta infantil mailetakoko Gipuzkoako txapelketan, Eibar Igerixanek hamabi laguneko ordezkari izan zuen bertan. Gehienek infantil mailan lehiatu zuten (hiru mutil eta hiru neska), lau emakumezko izan ziren junior mailan konpetitzen, eta bi gizonzko jardun zuten maila absolutuan. Denen artean, Paula Calvo nabarmendu zen beste behin, guztira zortzi domina bereganatuz (euretako sei urrezkoak), gainera lau absolutu mailakoak. Berak eraman zuen infantil mailako igerilari onenaren Txapela eta Kopa eta, horrekin batera, absolutu mailako bigarren onena izatearen Kopa.

Paula Calvok urrezkoa irabazi zuen 100 libre, 200 estilo eta 100 eta 200 bizkar erako infantil maila-



Txapelketan gure herriko ordezkari izan zutenen gehiengo, bi bakarrik falta dira.

ko probetan, eta 400 libre eta 200 bizkar erakoan absolutukoan; horiekin batera, zilarrezkoa irabazi zuen 100 bizkarrean eta brontzezkoa 100 librean, kasu bietan absolutu mailan. Asier Gomez izan zen

podiumera igotzea lortu zuen Eibar Igerixaneko beste ordezkaria: absolutu mailako 800 libre erako proba irabazteaz gain, bigarren izan zen 1.500 librean. Guztira hamar domina lortu zituzten gureek.



Xuban Varona kadetea sakaia egiten.

Astelenan gaur hiru partidu, etzi beste bat

Gipuzkoako Udaberri Sariko hiru partidu hartuko ditu gaur Astele-nako jaialdiak 19:00etatik aurrera, hirurak ere binakakoan: hasteko, helduen mailan, Azkargorta-Conde Deporrek bikoteak Tolosako Ezenarro-Saralegi izango du aurrez aurre; bigarrenen, kadete mailan, etxeko Varona-Azpilikueta bikoteak Andoaingo Bidezabal-Alvarez izango du aurkari; eta hirugarre-

nean, oraingo horretan ere helduen mailan berriro, Klub Deportiboko Ibarra-Agirresarobe bikoteak Azkoitiko Oteiza-Zenekortari egingo dio aurre.

Domekako jardunaldia ere arratsalde izango da, baina 17:00etan hasita. Paleta gomako partidua izango da ikusgai: Guinea eta Osa eibartarrek Zarauzko Cabaleiro eta Olazabal izango dituzte aurkari.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldiarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

garbibox
guzti-garbitasun
limpieza profesional

TAPIZARIA + AUTO GARBIKETAK
Urtzi Antxustegi (688 649 837)
09:30/19:00 EROSKI-n



Elene Arrazolaren marka berria 60 metroko proban

Aurreko asteburuan Anoetako Belodromoan jokatutako Gipuzkoako txapelketen barruan, Eibarko Klub Deportiboko 15 urteko Elene Arrazola atletak lortutako garaipenarekin, gainera, absolutu mailako txapela ere jantzi zuen. Emakumeen 60 metroko lasterketako Klub Deportiboko orain arteko marka Elena Gisasolaren esku zegoen, 1982an berak egindako 7,77ko denborarekin. Ondoren, Leire Gandiaga, 7'93ko markarekin, eta Jone Perales, 7'80rekin, gerturatu ziren. Eskuraezina zirudien denbora hori apurtzea lortu du oraingoan Elene Arrazolak, Gipuzkoako txapelketa absolutuan bera baino nagusiagoak ziren guztiei irabazita. Eibartarrak, gainera, finalurrekoan ere gainditu zuen Gisasolaren marka, 7,70ko erregistroa eginez. Behin finalean, eta irteera ezinhobearekin, marka berria ezarri zuen, oraingo horretan 7,66, eta, horrekin batera, lehenengo iritsi eta txapela jantzeko.

Arene eta Campos kapitainek 100 partidu jokatu dituzte dagoeneko Eibar FT-rekin

Datorren domeka eguerdian gipuzkoarren arteko derbia izango da Ipuruan. 12:00etan hasita, Eibar FT-k eta Realak indarrak neurtuko dituzte F Ligako 15. jardunaldian. Ez da norgehiagoka erraza izango Yerai Martinek prestatzen duen taldearentzat, baina animoso ekingo diote bere jokalariai etxean azken aldian lortutako garaipenei

jarraipena emateko asmoz. Gainera, astean zehar izan dute taldean zer ospatzerik, Arene Altonaga eta Ane Campos kapitainek 100 partida bete dituztelako SD Eibar-eko elastikoarekin. Bi kapitain armaginek nabarmendu dutenez, "ezin genuen imajinatu orain gauden lekura iritsiko ginenik, eta beti izan da ametsa guretzat".



Herriko futbol taldeak indartsu dihardute

F Ligan jokatzen duen SD Eibarko emakumezkoen lehen taldeak 12. postuari eusten dio eta jaitsiera sei puntutara du. Bigarren taldeak 3. RFEF mailako bere multzoko buru izaten jarraitzen du, bigarrenarekiko zazpi punturen aldearekin. Gizonezkoen taldeei dago kienez, LaLiga Hypermotioneko SD Eibarko lehen taldea igoera zuzeneko postuetan sartu da azken jardunaldian, 3. RFEF mailan jokatzen duen Vitoriak lider jarraitzen du, bigarrenari zazpi

puntu aterata, eta Erregionaleko Ohorezko mailan jokatzen duen Eibar Urko bigarren postura igo da, liderrarengatik hiru puntura. Erregional mailarekin jarraituz, Gorengoen mailan jokatzen duen Urki laugarren postuan dugu, denboraldi bikaina eginez, eta 1. Mailako Eibartarrak-ek igoera faseari ekin dio irabazitako Ligaren pauso beretik, horko lehenengo partiduan 1-4 irabazteko. Azken horrek bihar du hurrengo partidua, Unben, 15:30etik aurrera.



Deporreko mendeurrenaren harira, xakea kalera atera zuten martitzenean.

Herriko xake taldeak lidergoa eskuratu du

Eibarko Klub Deportiboko taldeak beste garaipen bat eskuratu zuen Gipuzkoako Taldekako 2. mailako txapelketako hirugarren jardunaldian eta, Bergaran bertako Zaleak taldeari 1,5-2,5 irabazi ondoren, lidergoan geratu da bakarrik. Diogo Olmok eta Xabier Beorlegik euren

partidak irabazi zituzten, Jon Aranak berdindu egin zuen berean, eta Iker Garciak galdu zuen laugarrena. Lidergoan dagoen Eibarko taldeak puntu erdiko aldea du Bergara A taldearekiko; justu asteburu honetan bien arteko lehia izango da Deporreko lokaletan.



Mek Eibarko jubeniletako mutilen taldea Euskal Ligara, neskena ateetan

Mutilen taldeak, gainera, bere mul-tzoko lehen postua eskuratu ondoren, Euskal Ligara igotzea lortu zuen. Asteburuan jokaturako fasean 31-23 irabazi zion Saieko Taller Auto Osinaga Eurorepar taldeari, 26-17 Indupime Basauriri eta, azkenik, 23-19 Lana Aloña

Mendiri. Jubenil maila bereko nesken taldeak ezin izan zuen helburu bera eskuratu, lan bikaina eginik fase horretako bigarren postuan geratu baitzen, garaipen bat, berdinketa bat eta porrot bat izan ondoren. Badago etorkizunik gure herriko eskubaloian!

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Real Sociedad (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Racing Ferrol - EIBAR (etzi, 14:00)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - Berriozar (etzi, 17:45)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Lagun Onak - VITORIA (bihar, 16:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Leioako Emakumeak (etzi, 15:45)

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Elgoibar (etzi, 12:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Ilintxa (bihar, 18:00)

Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Hernani B (bihar, 15:30)

Jubeniletako Ohorezko Maila

Arenas - EIBAR (etzi, 12:45)

Jubeniletako Liga Nazionala

EIBAR B - Indartsu (bihar, 13:15)

Kadeteetako Euskal Liga

Portugalete - EIBAR (etzi, 16:00)

FOBALL-ZALETUA

• Xania - Limpieza Rueda (bihar, 09:00)

• Malape Taberna - BOJ (bihar, 10:30)

• Bar Marem - Adahi Eraieder (etzi, 09:00)

• Baserri - Gastro Gilda (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen 3. Maila

Anoeta - EIBARTARRAK (gaur, 20:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Liga

MEK EIBAR - Helv. Anaitasuna (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

Tarazona - MEK EIBAR (bihar, 18:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Malape Elgoib. - MEK EIBAR B (bihar, 17:45)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Urnieta - MEK EIBAR B (bihar, 18:00)

FRRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko Maila

Majadahonda - EIBAR (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Hotel Txarriduna (bihar, 14:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Oiarso - Artes. JUANTXO (bihar, 20:00)

AZ Casa Rioja - EIBAR B (bihar, 20:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR C - Zurrut (bihar, 16:15)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

Chiclana - URBAT (etzi, 17:00)

Eibarko eta San Benedetto del Trontoko basoak bat

Naturak ez du mugarik. Eibar BHI-koek esaten duten bezala, “ez gaude naturaz aparte, naturaren parte gara”, bai Eibarren bai San Benedetto del Tronton. Zerk lotzen dute, ostera, Euskal Herriko eta Italiako hiri hauek? Eibar BHI-koek dute horren erantzuna, Erasmus+ deritzon ekimenean hango ikasleekin dihardutelako proiektu bat garatzen.

Erasmus ikasleen mugikortasuna sustatzen duen programa da eta Eibar BHI-koek proiektu bat garatu dute bertan parte hartzeko. “Eibarren ingurunearekin eta basoekin dugun arazoa ikusita, Eibarko Baso Biziak taldekoekin harremanetan jarri ginen eta eurek lantzen dituzten gaiak guri azaltzeko eskatu genien. Orduan, proiektu bat garatu genuen eskolan, otsailean Erasmus+ egitasmorako aurkeztu genuen eta uztailean jakin genuen onartu zutela”, azaldu digu Ainhoa Argoitia Eibar BHI-ko irakasleak.

Onartu ondoren, dirulaguntza jaso zuten institutukoek eta, horrela, zortzi ikasle proiektua garatu dute Italiako San Benedetto del Tronto hiriko Liceo Classico G. Leopardi ikastetxeko ikasleekin elkarlanean (online plataforma baten bitartez). Ikasle taldea astelehen arratsaldeetan biltzen zen eta gure ingurunea ondo ezagutzeko aukera izan dute hilabete hauetan. “Hasieran, hemen ditugun zuhaitzak eta

Eibar BHI-ko ikasleek Eibarko Baso Biziak elkartekoekin elkarlanean garatu ahal izan dute proiektua

abar zeintzuk ziren azaldu ziguten eta zuhaitz inbasoreak zeintzuk diren ezagutu genituen. Behin txangoa egin genuen inguruko mendietan eta, mugikorreko aplikazio baten bitartez, zuhaitzen hostoei argazkia eginda, zein zuhaitz-mota den jakiteko aukera dagoela ikusi genuen”, azaldu digute ikasleek. Horrela, Eibarko Baso Biziak elkartekoekin elkarlanean, ekintza ezberdinak egin zituzten gaiaren inguruan informazioa jasotzeko eta herrian dugun egoera aldatzen saiatzeko. Horrela, besteak beste, ezkurak bildu eta landatu zituzten.

Proiektuari amaiera emateko, elkartrukea egin dute italiarrekin. Eibartarrak dagoeneko egon dira San Benedetto del Tronton eta italiarrak martxoaren erdialdean etorriko dira gurera. Hemen hainbat irteera egingo dituzte, batzuk Eibarko Baso Biziak taldekoekin batera. “Zuhaitz landaketa egiteaz gain, beste irteera bat egingo dugu inguruko natura eta basoen egoera ezagutzeko. Kalamua ingurura joango gara”, azaldu digu Mikel Jauregi Eibarko Baso Biziak elkarteko kideak. Argoitiak esan digunez, “listoia oso altu laga digute. Gure bisita oso ondo antolatuta zuten eta orain guri tokatzen zaigu gauzak ondo egitea”.

Baso ezberdinak

Eibarkoek proiektua garatu zutenean, italiarrek interes berezia erakutsi zuten. “Hango basoa oso ezberdina izan arren, Mediterraneo itsasoaren alboan dagoen hiria delako, antzeko arazoa dute han”, esan digu Argoitiak.



Eibar BHI-ko zortzi ikasle San Benedetto del Tronto hirian egon dira. EIBAR BHI

Eibartarrek sei egun egin dituzte San Benedetto del Tronton eta gero, Italian zeudela aprobetxatuta, Erroman pare bat gau pasa zituzten. “Gustora ibili gara”, esan digu zortzikoteak. “Egun batean, euren inguruneari buruzko informazioa eman ziguten eta, ondoren, mendi-buelta eman genuen”, esan digute ikasleek. Ez zen mendi-buelta bakarria izan, beste bat eman zutelako hango inguruak ezagutzeko. “Euren ingurunea nahiko antzekoa iruditu zitzaigun, basoa batez ere, baina egia da han olibondo gehiago dituztela eta basoak lehorragoak direla”, gehitzen dute. Argoitiak esan digunez, “han ez dute hainbeste landaketa, ez dutelako basoa hemen egiten dugun moduan ustiatzen. Orduan, olibondo pila bat dituzte, haritzak ere dezente, baina ez dituzte pinuekin eta eukaliptoekin hemen ditugun bezalako arazoak”.

Elkartrukearen abantailak

Naturaren inguruan ikertzeaz eta hausnartzeaz gain, beste gaitasun

Italiako ikasleak martxoaren erdialdean etorriko dira gurera



batzuk indartzeko balio izan die elkartrukeak ikasleei. “Italiarrekin elkar ulertzeko ingelesa erabili dute”, azaldu digu Argoitiak. Proiektuan aritu diren irakasle biak ingeleseko irakasleak diren neurrian, “oso pozik” daudela adierazi dute. Gainera, beste errealitate bat ezagutu ahal izan dute, bai hezkuntza arloan bai bizimoduari dagokionez, italiarren etxeetan egin baitute lo. “Demaseko etxeak dituzte”, esan digute ikasleek harriduraz.

Elkartrukearekin, gainera, italiarrei gure hizkuntza eta kultura ezagutzeko interesa piztu zaie. “Hasieran, eurentzat *spagnoli* ginen eta, orduan, gure kultura, hizkuntza eta abarrak azaldu genizkien, eta amaieran *baschi* esaten ziguten”, Argoitiaren berbetan. Orain, euskararen inguruko klasea jaso nahi dute hemen.

Bisitaren ondoren, Eibarko zortzi ikasleek amaitutzat emango dute proiektua, baina San Benedetto del Trontorekin ereindako lotura betirako izan daiteke.



Euskal Herriko Mus Txapelketaren Eibarko kanporaketa otsailaren 9an

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketaren Eibarko kanporaketa otsailaren 9an jokatu da, Eibarko Klub Deportiboaren tabernan. Bertan parte hartzeko, bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, eta izen-ematea egunean bertan egingo da, Deporren bertan, 17:00etatik 17:30era. Eibarko kanporaketa irabazten duen bikoteak martxoaren 9an izango den Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko aukera izango du. Euskal Herriko Txapelketaren finala, bestalde, martxoaren 23an jokatu da, Zuberoako Altzai herrian. Informazio guztia Interneten dago eskuragarri, www.ehmus.eus helbidean.



23. Korrikarako materiala AEK euskaltegian salgai dago

Martxoaren 14tik 24ra egingo da Korrikaren 23. edizioa, Irundik Baionara, eta egun horretarako petoak, banderolak, denetariko kamisetak, giltzatakoak... Eibarko AEK euskaltegian erosi daitezke. Horrez gain, laster irtengo dira berriz ere kalera, salmenta-mahaia ipintzeko. Korrikarako egitarauaren berri ere laster emango dute.



Zapatuetako Tailerretan izena emateko epea zabalik

5 eta 11 urte bitarteko haurrentzat udalak antolatzen dituen Zapatuetako Tailerrak ekimenerako aurrematikulazioa hasita dago. Interesdunek online, Eibarko Udalaren webgunearen bidez, bete beharko dute izena emateko formularioa, eta ondoren zozketa bidez aukeratu dituzte parte-hartzaileak. Eskainiko diren tailerrak honako hauek dira: Dass masa, buruhandiak, musika instrumentuak material birziklatuekin egiteko tailerra, Funkour eta globoflexia. Informazio gehiago eskuratzeko www.eibar.eus webgunean begiratu daiteke.



Antzerkirako sarrerak online eta leihatilan erosi daitezke

Otsailaren 14an hasiko dira Eibarko XLVII. Antzerki Jardunaldiak, Anabel Alonso eta Irene Hernando aktoreen solasaldiarekin. Motorrak berotzen hasteko, asteburuan antzerkia kalera atera zuten Don Juan Tenoriok eta Doña Inesek (bideoa gure YouTube kanalean), sarreren aurrezalmenta hastearekin batera. Antzerkirako sarrerak Kutxabank zerbitzuaren bidez eta Coliseoko leihatilan (astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era) erosi daitezke,



“Kutxartean” haurrentzako antzezlana bihar Coliseon

Teatro Paraiso Antzerkiak “Kutxartean” haurrentzako antzezlana aurkeztuko du bihar, Coliseo antzokian. Emanaldia 17:00etan hasiko da, eta euskaraz izango da. Sarrerak 5 euro balio du. Teatro Paraisok lan artistiko handia egiten du, haurrentzako eta familientzako kalitatezko ikuskizunak ekoizti, sortu eta erakusteko, eta horretan ari da taldea, 45 bat urtetan. Lan honek jolasaz gozatzeraz, lagunartean zailtasunak gainditzera eta beste gizaki batzuekin batera edozein amets lor daitekeela irudikatzeraz gonbidatzen du publikoa.



Datorren asteburuan egingo da Uni Encounter topaketa

Uni Encounter informatika eta teknologia topaketa egingo da otsailaren 9an eta 10ean, Hezkuntza Esparruan. Bertan LAN Party-a (jolasu eta informazioa elkarbanatu eta elkartrukatzeko ordenagailua daramaten pertsona ugari biltzen dituen jaialdia), hitzaldiak eta tailerrak egingo dira eta, besteak beste, adimen artifizialaren eta zibersegurtasunari buruz arituko dira. Gainera, e-kirolen lehiaketa egingo da (1.500 euro saritan), Eleskyren kontzertua, K-Pop cover lehiaketa... Egitarua online dago.



Musika Eskolak bi santa-eske egingo ditu domekan

Euskal Herriko beste toki askotan bezala, domekan Santa Ageda bezpera ospatuko dugu Eibarren ere. Iaz egindakoaren bidetik, Juan Bautista Gisasola Udal Musika Eskolakoei bi kalejira egingo dituzte. Lehen santa-eskea 11:00etan hasiko da, Arraten. Bertatik abiatuta, baserri batetik bestera ibiliko dira, koplak kantatzen. Orbeko bidetik jaitsiko dira, Urkizuraino. Eta arratsaldean berriz ere ibiliko dira koplak abesten, herriko kaleetan, 19:00etan Untzagatik abiatuta.

Euskarazko eskaintza otsailerako

Eibarren otsailerako euskaraz edota euskararen inguruan antolatutako diren ekintza guztiak laburbiltzen dituen agenda kalerratu du Eibarren Akebai



plataformak. Bertan Aratosteetako jarduerak, Idazlearekin Harixa Emoten literatura-tertulia, hainbat tailer eta hitzaldi non eta noiz egingo diren azaltzen da.

Plaza libreak daude ingelesa eta frantsesa praktikatzeko taldeetan

Eibarko Liburutegiak ingelesa eta frantsesa praktikatu nahi dutenentzat bilerak (“Meetings at the library” eta “Réunions dans la Bibliothèque”) antolatzen ditu, eta oraindik plaza batzuk badaudela jakinarazi nahi dute. Bilerak astero egiten dira, Portalean, eta saioak ordu eta erdikoak izaten dira, eguaztenetan (ingelesa) eta eguenetan (frantsesa), 19:00etan. Interesa izanez gero, liburutegira idatzi (liburutegia@eibar.eus) edo deitu (943708437).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2				6	7
			6	4		3
7			2	3	8	
	4			7	1	
	1					3
		9	5			2
		5	9	2		1
4			1	5		
3	1					8

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

2	8	6			7		1		
		1					8	2	
						9		3	
	9			8				5	
			9		5				
5				7				3	
3		4							
7	1						4		
	5		2				3	7	1

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9



AURKITU 10-NAKO EZBERDINTASUNAK



Otsailak 2/8

BARIXAKUA 2

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak, euskaraz, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat. Txaltxa Zelai.

ZAPATUA3

KOKO-DANTZAK ETA KOKO-ESKEA

08:30 Errebalen.
09:00/14:00 Aginagako baserrietan.
18:30 Errebalen koko-mokoen elkartzea, koko-dantzak eta kantuak, Mauxitxa txarangak lagunduta, eta kalejiraren hasiera. Ibilbidea: Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton, Plaza Barria, Errebal Plazia.
21:15 Azken koko-dantza eta kantuak. Errebal.



SANBLASEN BEDEINKAPENAK

10:30 Azitain eta Urkiko elizak.
11:00 San Pio X.a eta San Agustin elizak.
12:00 Karmengo Amaren eliza eta Amañako El Salvador.



HAUR PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bonoarekin). Astelena frontoia.

ANTZERKIA

17:00 "Kutxartean" (Teatro Paraiso Antzerkia). Haurrentzat. 5 euro. Coliseo.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat eta haien familientzat. Ipurua kiroldedia.

DOMEKA 4

SANTA AGEDA

11:00 Juan Bautista Gisasola Udal Musika Eskolako kalejira. Arraten hasita, Orbetik jaitsi eta Urkizuraino.
19:00 Bigarren kalejira. Untzagatik abiatuta.



EGUENA 8

URTEKO BATZARRA

11:00 Ikasten elkartearen batzar nagusia. Armeria Eskola (areto nagusia).

EGUEN ZURI

15:15 Eskoletako taldeen kalejirak.
17:00 Kalejira, Jainaga eta Narbaizarekin. Urkizutik Untzagara.
17:00 Erromeria, Lisker taldearekin. Untzaga.
17:00/19:00 Tailerrak: kareta eta makillajea, Astixaren eskutik. Untzaga.
19:00 Mozorro lehiaketa. Galziako Etxea.



ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 18ra arte:

- "BARNE-BIBRAZIOAK", Iker Valleren margolanak. (Portalea).
 - "TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena. (Armagintzaren Museoa).

Otsailaren 29ra arte:

- "EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKA eibartarraren erakusketa. (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

2an (BARIXAKUA)
KAFE-TERTULIA

18:30 / Lila
 "7. artea" (Loredi Salegi)

ERMUA

2an (BARIXAKUA)
ANTZERKIA

20:30 / Ermua Antzokia
 "Kortxoaren dilema" (Tartean)

DEBA

3an (ZAPATUA)
KALDEREROAK

19:00 / Agirre jauregitik
 Kalejiran

4an (DOMEKA)

EKIN BERDEA


11:00 / Casacampo
 "Casacampo zain dezagun eguna" (Debanatura)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 3an: 22:30
- 4an: 20:00
- 5ean: 19:30

"Little Richard"
DOKUMENTALA



2023/AEB/101'
Zuzendaria: Lisa Cortés
Aktoreak: Little Richard,
Chuck Berry, Paul McCartney
Musika/Biografikoa

2 ARETOA

- 3an: 19:45, 22:30
- 4an: 17:00, 20:00
- 5ean: 19:30

"El último soldado"
DRAMA



2023/Erresuma Batua/100'
Zuzendaria: Terry Loane
Aktoreak: Pierce Brosnan, Jürgen
Prochnow, Claire Rafferty
Gertatutakoan oinarrituta

ANTZOKIA

- 3an: 17:00 (1), 19:45, 22:30
- 4an: 17:00 (1 aretoa), 20:00
- 5ean: 19:30

"La tierra prometida"
DRAMA



2023/Danimarka/127'
Zuzendaria: Nikolaj Arcel
Aktoreak: Mads Mikkelsen,
Amanda Collin, Simon Benjejer
Abenturak/Historikoa

ANTZOKIA

- 3an: 17:00 (2 aretoa)
- 4an: 17:00

"Patrick"
ANIMAZIOA



2023/Kanada/88'
Zuzendaria: Sophie Roy
**Fantastikoa/Intsektuak/
Adiskidetasuna**

EIBARKO HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA

Ikusi dut gure auzoko denda askotan erakuslehoan jartzen dituzten kartelak eta oharrak erdara hutsean daudela

Dendariei esango nieke, baina ez naiz ausartzen... Zer egingo dut?

Bidali ASTINDU kanalerari!
Oso erraza da:

Deitu: 943 708426
Idatzi: eibamena@eiba@gmail.com
Bete webgureko formularioa
Idatzi Whatsapp: 688 69 85 66

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **NAHIA**, martitzenian 6 urte bete zenuazena-eta. Besarkada estu bat etxequon partez.



Zorionak, **ADRIANA**, etxeko printzesori! Hillaren 6xan 3 urte beteko dozuz-eta. Maite zaittugu. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **NERE!** Astelehenian 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Liberen partez!



Zorionak, **OIHANA**, astelehenian 10 urte, gure txikixa haunditzen hasi da. Asko maite zaittugu!!! Etxekuen partez.



<p>FUNEUSKADI Grua Agurra</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funerakadi</p> <p>TANATORIO GREGATORIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xalilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan
 - Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).
 - Emakumeak 2 logeleko pisua hartuko luke errentan Eibarren. Kontratu finkoarekin. 688744217. Ivon Peña.

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai
 - 2008ko Citroen C3 HDI 70

Audace salgai, diesela eta granate kolorekoa. 116.500 kilometro besterik ez, oso egoera onean, garajejan beti. IAT erregelari. 645930806.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garajea bilatzen dut Ipuru zonaldean. 80 euroko aurrekontua. 628933542.
- Txomon garaje itxia alokagai. 615775536.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 673538021.
- Gizonezkoa eskaintzen da karretillero bezala eta garabi edo zubi-garabiarekin lan egiteko. 602381455.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642158889.
- Gizonezkoa eskaintzen da peoi bezala, eraikuntzan lan egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. 624400117.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 656811665.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 623731063.
- Neska eibartarra eta euskalduna eskaintzen da arratsaldean lan egiteko. HH eta LHko ikasketekin. Esperientzia handia. 638083826.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Externa. 624910331.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formazio ziurtagiriarekin). Esperientzia. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Orduka. 631229408.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 660919423.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile titularekin. 688818176. Rosa.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo pasiatzeko eta peoi bezala. 604220024.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 641417815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. Orduka. 632768653.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. 602393678.
- Emakume arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako, batez ere interna moduan. Esperientzia eta erreferentziak. 632270215.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 637222318 eta 642577823.

4.2. Langile bila

- Zerbitzari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 634277015.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimikako klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- 105 cm-ko ohe artikulatua (triangeluarekin eta ezkerreko barrarekin) salgai. Gorpil-aulkia + motorra, eta bainugelako gorpil-aulkia. Bakoitza bere aldetik erosi daiteke. 634410873 eta 677061025.

6.2. Eman

- 2 urteko bi txakur oparitutako nituzke. Labradore arrazakoa bat, eta ehizakoa bestea. Xer-toaz eguneratuta. 653733457.
- Musika klasikako bilduma (100 CD) oparituko nuke. 656732584.

ARATOSTIETAKO GIORRIK ONENIAN!!!





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea


Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Esteikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Komplutentsean.
Hortz-Esteikan Diplomaturia.
Austran Institutua, Bartzelona.
Etegabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com